



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN GOMENDIOA BIZKAIKO FORU-ALDUNDIARI "BONO DENDA" KANPAINAREN ESPARRUA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZARI BURUZ

TOCI. LAGUNTZEI ETA DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ARAUDIA

1. EUROPAKO ARAUDIA

A) EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUA

1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 107. artikulua xedatzen duenez, "estatu kideek emandako laguntzak edo estatuko funtsen bidez emandakoak, edozein modutakoak izanda ere, barne-merkatuarekin bateraezinak izango dira estatu kideen arteko trukaketei eragiten dieten heinean, baldin eta, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez, lehia faltsutzen badute edo faltsutzeko modukoak badira".

Artikuluaren bigarren atalak xedatzen duenez, berriz, "barne-merkatuarekin bateragarriak izango dira banakako kontsumitzaileei emandako gizarte-laguntzak, produktuen jatorrian oinarritutako bereizkeriarik gabe ematen badira, eta hondamendi naturalek edo salbuespeneko beste gertaera batzuek sortutako kalteak konpontzeko emandako laguntzak".

Azkenik, hirugarren atalak xedatzen duenez, "barne-merkatuarekin **bateragarritzat jo ahal izango dira** bizi-maila nabarmen apala duten eskualdeetako edo azpienplegu-egoera larria jasaten duten eskualdeetako ekonomia garatzeko laguntzak, Europarentzat interes erkidekoa den proiektu garrantzitsuren bat sustatzeko laguntzak edo estatu kideren bateko ekonomiaren nahasmendu larriren bat konpontzeko laguntzak, ekonomiako zenbait jardueraren edo zenbait eskualderen garapena sustatzeko laguntzak, kultura sustatu eta ondarea zaintzeko laguntzak eta Kontseiluak Batzordearen proposamenaren gainean hartutako erabakiz zehaztutako gainerako laguntza motak".

Bestalde, 108. artikulua xedatzen duenez, "laguntzak emateko edo aldarazteko proiektuen berri emango zaio Batzordeari, behar besteko aurrerapenarekin oharrak aurkeztu ahal izan ditzan. Baldin eta Batzordeak proiekturen bati barne-



merkatuarekin bateraezina dela irizten badio, estatuak hura ezabarazteko edo aldarazteko prozedurari ekingo dio luzamendurik gabe".

B) 1998/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, BATZORDEARENA, 2006KO ABENDUAREN 15EKOA, MINIMIS LAGUNTZEI TRATATUKO 87. ETA 88. ARTIKULUAK APLIKATZEARI BURUZKOA

2. 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean egon zen indarrean Erregelamendua. Bada, 2.2. artikuluan xedatzen zuenez, hiru ekitaldi fiskaletan enpresa jakin bati ematen zitzaion guztizko minimis laguntza ezin zen izan 200.000 eurotik gorakoa.

C) 1407/2013 (EB) ERREGELAMENDUA, BATZORDEARENA, 2013KO ABENDUAREN 18KOA, MINIMIS LAGUNTZEI EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUKO 107. ETA 108. ARTIKULUAK APLIKATZEARI BURUZKOA

3. 2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean Erregelamendua. Bada, 3.2. artikuluan xedatzen duenez, hiru ekitaldi fiskaletan enpresa jakin bati ematen zaion guztizko minimis laguntza ezin da izan 200.000 eurotik gorakoa.

2. ESTATUKO ARAUDIA: 38/2003 LEGE OROKORRA, AZAROAREN 17KOA, DIRU-LAGUNTZEI BURUZKOA

4. Legeko 2. artikulua xedatzen duenez, diru-laguntzak dira administrazio publikoek eta haien mendeko erakundeek pertsona publiko eta pribatuei esleitzen dieten diru oro, baldintza hauek betetzen badira betiere:

- a) Onuradunek zuzeneko kontraprestaziorik ez ematea.
- b) Dirua helburu jakin bat lortzeko, proiektu jakin bat gauzatzeko, jarduera jakin bat egiteko edo jokaera jakin bat hartzeko ematea, aurretik edo ondoren, edo dirua egoera jakin batean ematea eta onuradunak dagozkion betebeharrak material eta formalak betetzea.
- c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokaera edo egoeraren helburua izatea onura publikoko edo gizartearen intereseko jarduera bat edo helburu publiko bat sustatzea.

5. 11. artikulua xedatzen duenez, berriz, diru-laguntzen onuradunak dira finantzatzen diren jarduerak egitekoak diren pertsonak eta diru-laguntza ematea legitimatzen duten egoeretan daudenak. Onuradunak prestona juridikoak badira, oinarri arautzaileek xedatzen badute betiere, badira onuradunak onuradunaren izenean eta haren kontura finantzatzen diren jarduerak beren osotasunean edo neurri batean egiteko konpromisoa hartzen duten bazkideak ere.



II. BIZKAIKO MERKATARITZAKO ENPRESARI-KONFEDERAZIOARI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA

6. 2013ko irailaren 27an, Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak 550.000 euroko diru-laguntza bat eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailari, Bizkaiko txikizkako merkataritzaren aldeko hiru ekimen babesteko:

- Kontsumoa sustatzeko ekimenak: 325.000 €:
 - Etxerako ekipamendua saltzen duten dendak (BONO DEKOR): 50.000 €.
 - Hiriko edo inguruko dendak (BONO DENDA): 275.000 €.
- Proiektu kontinuitateak (merkataritza berdea) babesteko ekimenak: 112.500 €.
- Enpresak eskualdatzeko proiektuak babesteko ekimenak: 112.500 €.

7. 2013ko urriaren 8an, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak aipatutako baldintzetan eskatutako diru-laguntza eman zion Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioari —G48271886 da Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren IFK—.

8. Gremioko eta inguruko 3.100 elkartek osatzen dute Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa, eta 1.845 enpresak (% 59,51k) betetzen zituzten BONO DENDA kanpainari atxikitzeko irizpideak.

III. BONO DENDA

A) EZAUGARRIAK

9. BONO DENDA kanpainako bonuek 10 euroko diru-laguntza bat ematen zuten, kanpainari atxikitako dendetan erosteko. 40 euro balio zuten, baina 50 euroko erosketak egiteko eskubidea ematen zuten. Hau da, diru-laguntzaren 10 euroak kontsumitzailearentzat ziren.

10. BONO DENDA kanpainako bonuak BBKren orotarako edozein kutzazainetan eros zitezkeen, edozein kreditu- edo zordunketa-txartel mota erabiliz. Bi bonu ordaindu zitezkeen gehienez kreditu- edo zordunketa-txartel bat erabiliz, baina kontsumitzaile bakoitzak eros zitezkeen bonuen kopurua ez zegoen mugatuta.

11. Erosketa bat egiteko bakarrik erabil zitezkeen BONO DENDA kanpainako bonuak; hau da, ezin ziren metatu tiket edo faktura bat ordaintzeko. Hala ere, zenbat bonu zituzten kontsumitzaileek, hainbat erosketa egin zitzaketen.



12. BONO DENDA kanpainak 2013ko abenduaren 2tik 2014ko urtarrilaren 31ra arte iraun zuen; kontsumitzaileek orduan erabili ahal izan zituzten kanpainako bonuak.

13. Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak 1.220 euroko galerak izan zituen BONO DENDA kanpainaren 2013-2014 ekitaldian, Foru Aldundiak emandako 275.000 euroko diru-laguntza kontuan hartuta. Konfederazioak bere baliabideak erabiliz egin zien aurre galerei.

B) KANPAINARI ATXIKITAKO DENDAK

14. BONO DENDA kanpainaren 2013-2014 ekitaldian izena eman nahi zuten dendek eskakizun hauek bete behar zituzten:

- Eskabidea betetzea, eredu normalizatua erabiliz. Eskabidean, dendaren eta legezko ordezkariaren datuak eman behar zituzten, eta, kanpainaren baldintzak aplikatze aldera bakarrik, datuok Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren fitxategi informatikoetan sartzeko eta tratatzeko baimena eman.
- Dendaren jarduera nagusia jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 64., 65., 66., 97210. edo 97220. epigrafearen barruan egotea¹.
- Gehienez ere hamar langile izatea, langile autonomoak eta besteren kontura lan egiten zutenak barne.
- Denda Bizkaian egotea.
- Salmenta-tiket bakoitzaren kopia bat eta BONO DENDA kanpainako bonuaren originala bidaltzea Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioari.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta hartzeko dokumentuaren kopia bat bidaltzea Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioari.
- Kanpainari atxiki aurreko hilabeteko TC2 dokumentuaren edo/eta kanpainari atxiki aurreko hilabetean autonomo-kuota ordaindu izanaren frogagiriaren kopia bat bidaltzea Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioari.
- Kanpainaren ezaugarrien berri ematea kontsumitzaileei.
- Kanpaina identifikatzeko materiala (kartelak, eranskailuak, etab.) agerian jartzea.
- Bonu bat bakarrik onartzea salmenta-tiket bakoitzeko.
- Kanpainaren berezko baldintzak behar bezala aplikatzen dituztela egiaztatzeko informazioa eta dokumentuak ematea Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioari eta Bizkaiko Foru Aldundiari.

¹ **64:** Txikizkako janari-, edari- eta tabako-merkataritza establezimendu iraunkorretan.

65: Janariez bestelako produktuen txikizkako merkataritza establezimendu iraunkorretan.

66: Merkataritza mistoa edo integratua, merkataritzako establezimendu iraunkorretatik kanpoko txikizkako merkataritza (merkataritza ibiltaria, azoka txikiak eta noizbehinkako edo aldizkako azokak), gordailuko erakusmahaiak dituen merkataritza eta aparatu automatikoen bidezkoa, eta askotariko produktuen posta edo katalogo bidezko txikizkako merkataritza.

97210: Ilea apaintzeko emakume eta gizonentzako zerbitzuak.

97220: Apaindegiak eta apaingelak.



15. 14.839 bat dendak betetzen zituzten BONO DENDA kanpainari atxikitzeko eskakizunak, eta 1.845 (% 12,43) Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioko partaide ziren.

16. Dendak Internet bidez atxiki zekizkiokeen BONO DENDA kanpainari².

17. Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak dokumentuak aztertu eta baliozkotu eta gehenez ere 45 egunean ordaindu behar zizkien BONO DENDA kanpainako bonuak kanpainari atxikitako dendei.

IV. BIZKAIDENDAK BIZKAIKO MERKATARI- ETA OSTALARI-ELKARTEEN FEDERAZIOAREN KEXA

18. BIZKAIDENDAK BIZKAIKO MERKATARI- ETA OSTALARI-ELKARTEEN FEDERAZIOAK komunikatu bat argitaratu zuen, BONO DENDA kanpainaren ezaugarriak kritikatzeko, eta gai hauek azpimarratu zituen:

- Programak norabide bakarrean erabiltzea diru publikoa, kanpainan izena eman nahi zuten merkatariek beren datuak eman behar baitzizkioten beste patronalari eta hark beste helburu batzuetarako erabil baitzitzakeen. Hori dela eta, Bizkaiko Merkataritza eta Ostalari Elkartearen Federazioak eskatu zuen Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioko partaide ez ziren dendek Foru Aldundian bertan edo beren elkarteetan eman ahal izateko izena kanpainan. Izan ere, bestela, Ondarroako dendek goiz oso bat eman behar zuten kanpainan izena emateko, adibidez.

- Merkataritza-sektorearen ordezkariak zuzen tratatu behar izatea, Federazioa baita BONO DENDA kanpainaren eragile nagusia; izan ere, hiriko ia 3.000 denda dira Federazioko bazkide.

V. HAUSNARKETAK

19. Krisialdi ekonomiko batean gauden honetan, badirudi arrazoizkoa dela administrazioek eskaria sustatzea. Ildo horretan, interes orokorreko helburu jakin batzuk lortze aldera, ondasun edo zerbitzu jakin batzuk erostea bultzatu zuten administrazioek.

Administrazioaren esku-hartzea ahalik eta mesedegarriena izateko lehiarentzat, komeni da laguntzen diseinua hertsiki lotzea lortu nahi den helburu orokorrari. Alde horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza honen helburua zen *kontsumoa dinamizatzea eta merkataritza-ehunaren lehiakortasuna, berrikuntza eta jasangarritasuna hobetzea*; **bereziki, hiriko edo inguruko merkataritzarena.**

² http://www.cecobi.es/es/campanas/bono-denda_4.html



Alabaina, gehienez ere hamar langile zituzten dendek bakarrik parte har zezaketen kanpainan, eta, hortaz, kanpainak ez zuen bultzatzen hiriko edo inguruko denda guztietan kontsumitzea, "denda txikietan" bakarrik kontsumitzea baizik.

Hau da, alde horretatik, ez zegoen koherentziarik lortu nahi zen helburuaren eta emandako diru-laguntzaren artean.

Bestalde, aztertzekoa da ea ba ote zegoen koherentziarik diru-laguntzaren helburuaren eta kanpainan parte hartu nahi zuten denden jarduera nagusiak jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren epigrafe jakin batzuen barruan egon behar izatearen artean. Izan ere, arrazoitu egin behar zen jarduera jakin batzuk aukeratu izana. Esaterako, arrazoitu behar zen zergatik aukeratu ziren zerbitzu jakin batzuk, edo ezbaian jarri ea aukeratutako epigrafeen barruko jardueretan aritzen ziren dendetako ondasun guztiek merezi zuten diru-laguntza.

20. Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak diru-laguntza bat eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari, Konfederazioak berak martxan jarritako kanpaina baten gastuen zati bat ordaintzeko, eta Foru Aldundiak eman egin zion.

Elkarren kontrako zenbait elkartek eskatu balizkiote diru-laguntzak Foru Aldundiari, hark ezingo zituzkeen diskriminatu; aitzitik, merkatuko lehia librea errespetatu beharko zukeenez gero, antzeko diru-laguntzak eman beharko zizkiekeen guztiei, interes publikoa kontuan izanik.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko iritzi balio sektorean jarraituki esku hartzeari etorkizunerako interes orokorreko helburu bat lortzeko, ekimena jendarteratzea aztertu beharko zukeen, eta, neurritz kanpoko ez balitz, konkurrentzia-prozesu bat martxan jartzea, ekimenean parte hartu nahi zuten beste elkarteak kanpoan ez gelditzeko.

21. BONO DENDA zen Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak proiektu jakin bat gauzatzeko diru-laguntza bat.

Interesdunak berak egiaztatu zuenez, Foru Aldundiak emandako diru-laguntzak neurri batean bakarrik arindu zituen Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak BONO DENDA kanpaina antolatzeako gastuak. Izan ere, kanpainak 1.220 euroko defizita ekarri zion azken ekitaldian Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioari, Konfederazioaren beraren arabera.

22. Diru-laguntzaren onuradun formala Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa zen, eta BONO DENDA kanpainak sorrarazitako gastuen zati bat ordaintzeko erabili zuen diru-laguntza.

Egiatzko onuraduna, ordea, kontsumitzaileak ziren, 10 euro hartu baitzituzten kanpainari atxikitako dendetan BONO DENDA kanpainako bonuak erabiliz egindako erosketa bakoitzeko. Hau da, diru-laguntzaren onuradun zuzenak ez ziren kanpainari



atxikitako dendak —kanpainari esker haien salmentek gora egitea zen haien ustezko etekina—.

Lehia babesteko araudiaren ikuspegitik, Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa merkatuan zuzeneko eragina zuen eragile ekonomiko bat zen, 10 euro ordaindu baitzizkien kontsumitzaileei kanpainari atxikitako dendetan BONO DENDA kanpainako bonuak erabiliz egindako erosketa bakoitzeko.

Alabaina, laguntza-publikoei buruzko araudiaren ikuspegitik, ezin esan daiteke Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa diru-laguntzaren "onuradun izandako enpresa" bat denik. Aitzitik, haren bitartez diru-laguntza hartu zutenak ziren onuradunak; hau da, kontsumitzaileak. Horrenbestez, BONO DENDA kanpainan, enpresa bat ere ez zen "laguntzen onuradun".

23. Nahi zuten denda guztiak atxiki zekizkiokeen kanpainari, eskakizun guztiak betetzen bazituzten betiere. Ez zegoen Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioko afiliatuentzako erreserbarik.

Nolanahi ere, programa jendarteratzeko sistema bat bermatu behar zuen administrazioak, kanpainan izena eman nahi zuten denda guztiak izateko haren berri eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioko bazkideek inolako abantailarik ez izateko.

24. Kontsumitzaileentzako laguntza bideratzeko, diru-laguntzaren onuradun formala Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa zen neurrian, beharrezkoa zen kanpainari atxiki zitzaizkion dendek informazioa ematea programak Konfederazioari ezarritako eskakizunei buruz.

Hots, interes orokorreko helburu bat lortze aldera, administrazioak beren datuak enpresa-elkarte pribatu bati ematera behartu zituen programan izena eman nahi zuten enpresak. Hala ere, egia esan, kanpainan izena eman nahi zuten dendek datuak Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren fitxategi informatikoetan sartzeko eta tratatzeko helburu bakarra zen kanpainaren baldintzak aplikatzea. Konfederazioak beste helburu batzuetarako erabili nahiko balitu kanpainan izena eman nahi zuten dendek datuak, datuak babesteko araudiak ezartzen dituen baliabideak erabil litzakete dendek.

25. Programaren esparruan ezarritako prozedurak ez zien kalte egin Bilbotik kanpoko dendei, ez baitzuten Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren egoitza batera joan beharrik kanpainari atxikitzeko: esan bezala, Internet bidez atxiki zekizkiokeen.

26. BONO DENDA kanpainako bonuak BBKren orotarako kutxazainetan bakarrik eros zitezkeen, baina edozein erakundetako kreditu- eta zordunketa-txartelak erabil zitezkeen. Gainera, Kutxabankek ez zuen ezer kobratzen aukera hori erabiltzeagatik.



Beraz, alde horretatik ez zegoen diskriminaziorik, ez baitzen beharrezkoa kontu korrante bat izatea BBKn.

Nolanahi ere, nahiz eta Kutxabankek ez kobratu ezer bonuak beste erakunde bateko txartelak erabiliz erosteagatik, komeni izango litzateke nahi duen edozein finantza-erakundek parte hartu ahal izatea programan.

VI. ONDORIOAK

LEHENA. Bizkaiko Foru Aldundiak, interes orokorra bermatu behar duen aldetik, bere helburuen esparruan, ekonomian esku hartzeko ekimenak jar ditzake abian, eskaria sustatzeko; adibidez, diru-laguntzak eman. Esku-hartzeak lehia ez faltsutzeko eta merkatuaren eraginkortasuna hobetzeko, gardentasuna ziurtatu behar da, eta eragileen arteko diskriminazio oro desagerrarazi.

BIGARRENA. Koherentzia izan behar da diru-laguntzen eta ustez lortu nahi den helburuaren artean, eta diru-laguntzak hertsiki lotu behar zaizkio helburuari.

HIRUGARRENA. Diru-laguntzak emateko prozesuak bermatu behar du kanpainan izena eman nahi duten denden artean inolako diskriminaziorik ez izatea, eta, horregatik, programa izena emateko interesa izan dezaketen denda guztiei ezagutaraztea ziurtatu behar da.

LAUGARRENA. Bizkaiko Foru Aldundiak beharrezko irizten badio sektorean jarraituki esku hartzeari etorkizunerako interes orokorreko helburu bat lortzeko, komeni da hauek kontuan hartzea:

- a) Ematen dituen diru-laguntzek eta Europar Batasunak laguntza publikoei buruz emandako araudiak bateragarriak izan behar dute.
- b) Aztertu behar du ekimena jendarteratzea eta konkurrentzia-prozesu bat jartzea martxan, nahi duten eragile eta elkarte guztiek parte hartu ahal izateko programan.
- c) Ekimenean parte hartzeko aukera eman behar die beste banketxe batzuei.

VII. GOMENDIOA

Azaldutako guztia kontuan izanik, Lehiaren Euskal Agintaritzak zera gomendatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari, gardentasuna sustatze eta diskriminazio oro desagerrarazte aldera: diseinatzen dituen diru-laguntzak ahalik eta hertsikien lotzea lortu nahi duen helburuari, publizitatea egitea, eta kanpainan parte hartzeko interesa izan dezaketen guztiek parte hartu ahal izateko sistema bat prestatzea.